

SEGMENTAZIOA

DeToxMe-ren erabiltzaile-segmentazioa bi publiko mota nagusitan banatzen da, nahiz eta zeharkako beste segmentu batzuk ere identifikatzen diren. Lehen helburu nagusia nerabeak eta gazteak (12-25 urte) dira, natibo digitala eta ongizate mentalaren inguruko kontzientzia handiena duena. Sarien sistemak (deskontuak nahi dituzte) erakargarritasun zuzena dute haientzat. Bigarren segmentu klabea produktibitatearen bila (18-35 urte) dabilen taldea da, ikasle eta profesional gazteek osatua. Beren motibazio nagusia menpekotasunaren kontzientzia baino gehiago produktibitate-behar argia da, eta DeToxMe tresna bat da haientzat, fokua mantentzen eta denbora eraginkortasunez kudeatzen laguntzen diena. Zeharkako segmentu gisa, gurasoak (35-55 urte) eta osasun mentaleko profesionalak ditugu. Gurasoak, seme-alaben ohiturengatik kezkatuta, bezero izan daitezke (Premium "Familia Plana"ren bidez). Profesionalek, berriz, aplikazioa tresna osagarri eta neurgarri gisa gomenda dezakete antsietate digitala edo fokua mantentzeko arazoak dituzten pazienteentzat, adibidez..